

IKASLEAREN AUTOMOTIBAZIOA

María Pilar Feijoo - Ainara Lasuen - 2008 - Otsaila

1.- MOTIBAZIOAREN ARAZOA HEZKUNTZAN

Gauza bat egiteak dakarren onurak sentitzeko aukera daukagunean, eta onura horiek oso onak dira guretzako, hori egiteko motibazioa oso altua izaten mantentzen da eta gauza hori egiteko gogo handiak dauzkagu. Adibidez, zarata gogor batek esnatzen gaituenean, edozein gauza egingo dugu zarata hori geldi dadin berriro ere lo hartu dezagun. Berdin gertatzen da norbaitengatik esfortzua egiten dugunean, eta bere ongizatea ikusten dugunean eta eskertzen digunean.

Baina hezkuntza lanak ez dizkio irakasleari errefortsuak berehala ematen. Gehienetan zailtasunak aurkitzen dira: ikasteko interesik ez daukaten ikasleak, ikasgelara etortzeari "gorroto" diotenak, arazoak bakarrik daudenean eta kexatzeko bakarrik agertzen diren gurasoak, irakaslearen arazoetaz kezkatzen ez den hezkuntza sistema, irakasten dutenen lana baloratzen ez duen gizartea... Presio asko, eguneroko ohikeria eta errefortsu gutxi. Nola sentitu motibazioa panorama hau urteetan zehar ikusiz? Ezinezkoa da. Ikuspegi hau soilik ikusten badugu, ezinezkoa da motibatzea eta lan hezkuntza borondate handiagatik egiten da, eta ez egiteak poztasuna dakarrelako.

Baina irakasle batek ikasleengan eragina dauka bizitzeko poza transmititzen duenean, hau da, benetan motibatuta dagoenean, eta ez behartuta dagoelako irakasten duenean. Irakasteko interesa eta gogoak transmititzen dituzten irakasleek iharduerak berritzen dituzte eta sormena eramaten dute bere klaseetara. Irakasle hauek beharrezkoak dira, automotibazioaren sekretua aurkitu baitute.

2.- ZER DA AUTOMOTIBAZIOA

Automotibazioa adimen emozionalaren ezaugarri bat da. Egiten dugunari zentzua emateko ahalmena da, arduraz egiteko eta arazoak edo kanpoko laguntza falta arren helburuak lortzeko lanean jarraitu. Lan hezkuntzan bizirik irauteko, automotibazioa beharrezkoa da.

Automotibazioa lore baten antzekoa da. Ondorengo ongarriak ematen dizkiogunean indartu egiten da:

- a) Egiten dugunari zentzua aurkitu
- b) Presente egon egiten dugunean.
- c) Biktimismotik urrundu
- d) Nahi duguna jakin, desiatu eta lortu gabe bizitzea posible dela jakin.

a) EGITEN DUGUNARI ZENTZUA AURKITU

Automotibazioa pizten zaigu ondorengo galdera egiten diogunean geure buruari: ZERTARAKO egiten dugu, hau da, helburua. Eta ez zergaitik egiten dugu. Ondorengo galderek gure ekintzei benetako zentzua aurkitzeko balio dute. Ez dira "buruarekin" erantzuteko, ezta intelektualizazioekin ezta hitz politekin ere erantzuteko, geure barneak entzuteko dira eta berak aurkituko edo somatuko ditu erantzunak.:

- a) Zertarako balio izan dizu zure irakasleek txikitan gauzak erakustea?
- b) Non egongo zinateke orain inork ez balizu ezer irakatsi?
- c) Zein/zeintzu irakaslek izan zuten eragin positiboa zugan? Zer baloratzen duzu beraiengan?
- d) Ze eragina izan nahi duzu zuk? Zer gustatuko litzaizuke zure ikasleek zutaz gogoratzea helduak direnean?.

Hezkuntza etorkizuneko harraminta da. Irakasle bakoitzak, tanta bat ematen du ikaslearen bizitzako itsasoan. Momentuan, ttantta horrek ez du eragin handirik izaten, baina denbora pasatzen demean, ttantta bakoitzak garrantzi handia daukala antzematzen da. Momento bakoitzean hau gogoratzen duenak ez du gogorik ezarik sentituko eta ez da lur jota egongo. Pozarik handiena besteen pozarekin pozten garenean sentitzen da. Era berean, motibaziorik handiena guk daukagun onena (besteen onerako) eskeintzen dugunean sentitzen da.

b) EGITEN DUGUNEAN PRESENTE EGON

Txikia zenean, Margaritak nagusia izan nahi zuen. Bere lagunak jolastera joateko deitzen ziotenean, berak ezetz esaten zuen, "txikiekin" jolastea ez zitzaio-lako gustatzen. Nahiago zuen etxean geratzea eta bere anai-arrebeek lagunekin hitzegiten eta barre egiten entzuten zituen: "Ai!- zioen- beraiekin egoten utziko balidate!".

Margarita gaztea zenean, bere gorputza perfektua ez izatea ez zela bidezkoa pentsatzen zuen. Aurpegian zituen granoak gorroto zituen eta aldizkarietan agertzen ziren emakumeen gorputzen inbidia sentitzen zuen eta helduen askatasuna dirua gastatzeko desiatzen zuen. "Ai- zioen- beraiek bezalako izaten posible baneuka!"

Margarita heldua zenean, mundua benetan zaila zela konturatu zen eta dirua edukitzeak ez zuela denbora falta konpontzen. "Ez naiz ezertara ailegatzen" zioen. Margaritak nostalgiaz begiratzen zituen haurtzaroko argazkiak, arazorik ez zegoenean, eta gaztetako gorputzaren graziak. Eta bizitza propiorik ez zeukala uste zuenez frustraturik sentitzen zen: "Ai! - kexatzen zen- zelako momentu onak lehenaldikoak!"

Margarita zahartu zenean oso haserre zegoen, ez zitelako bere aholku eta eskaerei kasurik egiten. Inori importa ez zitzaio eta ezertarako balio ez zuela pentsatzen hasi zen. Min, erreuma, ahulezi bakoitzagatik nahigabetu egiten zen... Eta momentu horretan ere, ez zen konturatu bere zahartzaroan ere ez zuela bizitzak momentu bakoitzean oparitzen zionaz gozatzen. Eta horrela hil egin zen, bizi izan zela enteratu barik. Margarita gaixoa!

Bizitzeko beharrezkoa dugu nahiak betetzeko edo lortzeko burrukatzea. Adibidez, norbaiti pianoa aingeruek bezela jotzea gustatuko litzaiokeela onartzea ez da bateraezina hori lortzeko energiarik ezta denborarik ez erabiltzeko erabakiarekin. Baina desio hori onartzen bada, pertsona bere bizitzako sujeta aktiboa sentitzen da, bere ametsa lortzeko ez burrukatzea aukeratu duelako eta erabaki hori berarena dela bizituen duelako. Ametsa itzalean izkutatzen bada, frustrazioa senti dezake, izan ahal zena ez zelako posible izan.

Bakoitza bere nahietaz ohartzen denean kanpoko eraginak ezabatzeko egoera onean dago eta telebistak edo besteek esaten diotena bere nahia ez dela konturatu daiteke. Geure nahiak konziente bihurtzen ditugunean, geure burua hobeto ezagutzen dugu. Kasu batzutan, norberaren nahiak aztertzen ditugunean, posible da batenbat lortzea merezi duela antzematen dugu. Amets baten atzetik joatea, ametsetan aritzea baino hobeto da. Bere ametsaren atzetik joaten direnak, ez dute motibazioa galtzen, bizitzako iharduera aspergarrietan ere.

TENTSIO KREATIBOA² **ZER DA BIZITZAN BENETAN LORTU NAHI DUZUNA?**

Norberaren irudia: Aipatu zure pertsonalitatean barneratu nahi dituzun hiru ezaugarriak.

Ondasunak: Ze ondazun materialak eduki nahi dituzu?

Etxea: Zein da zuretzat bizitzeko ingururik onena?

Osasuna: Zure gorputzarekin zerikusia duena kontuan harturik, zeintzu dira zure nahiak?

Harremanak: Ze motatako harremanak eduki nahi dituzu zure lagunekin, familiarekin eta besteekin?

Lana: Zein da zure ametsezko egoera profesionala? Zer nahi duzu lortu zure esfortzuekin?

Interes pertsonalak: Zeintzu dira zure nahiak ondorengo arloetan: ikasketa indibiduala, bidaiak, irakurketa eta beste ekintzak?

Komunitatea: Zein da zure elkarte edo gizarteari buruz daukazu ikuspuntua?

Zahartzaroa: Nola nahi duzu bizi zure zahartzaroa?

Heriotza: Nola nahi duzu hil?

Bizitzako helburua: Besteak zutaz gogoratzen direnean, zer gustatuko litzaizuke esatea...

Besteak: Zeintzu dira zure nahiak bizitzako beste arloetan?

² SENGE, P.M.; *La quinta disciplina en la práctica*. Granica. Barcelona, 1994